



FONDOAK ERREPRODUZITZEKO ZERBITZUA

Edozein pertsona edo erakundek eskura ditzake artxiboko dokumentuen erreprodukzioak fotokopian edo formatu digitalean, beti ere dokumentu originalen kontserbazio egoera kontuan hartuz eta, jabetza intelektualari buruzko araudiaren baldintzapean. Legez eskuragarri ez diren datuak dituzten dokumentuak ezin izango dira erreproduzitu.

ERREPRODUKZIOAK EGITEA NOLA ESKATU. JARRAITU BEHARREKO URRATSAK

Eskaera egin beharko da —posta elektronikoz egin ahal izango da—, eta bertan honako puntu hauek adierazi beharko dira:

- Datu pertsonalak: Izenabizenak, NAN, helbidea, telefonoa, faxa edo posta elektronikoa eta, hala badagokio, lan egiten duen erakunde edo enpresaren izena..
- Eskaeraren arrazoia —ikerketa edo argitalpena—
- Erreferentzia dokumental osoa: Katalogo-zenbakia eta deskripzioa.

Udal Artxiboak, baimendutako erreprodukzioei dagokien aurrekontua bidaliko du, Udaleko Osoko Bilkurak Udaleko erreprodukzio zerbitzu guztientzako onartu zituen tasen arabera.

ZERBITZUA	TASA
DIN A4 fotokopia	0,10 €
DIN A3 fotokopia	0,21€
Mikrofilmen fotokopiak (A4)	0,55 €
Ziurtatutako kopia (A4)	0,21 €
Ziurtatutako kopia (A3)	0,42 €
Ziurtatutako kopia (A4 mikrofilm)	0,62 €
Irudi digitalizatua	0,80 €
Internetetik bidaltzea ≤ 100 kb	0,80 €
100 Kb-ko frakzio bakoitza	0,35 €
Zuribeltzean inprimatutako orria	0,10 €
Koloretan inprimatutako orrida	0,21 €
Koloretan inprimatutako irudia (pap. fot.)	0,80 €
CD-ROM	1,60 €

Korreio arruntez bidaltzea eskatzen diren kasuetan, bidaltze-gastuak ere gehituko dira, korreo zerbitzuaren tarifa ofizialen arabera.

Grabatu eta/edo bidalitako informazioaren erabilerak, jabetza intelektualari eta datu pertsonalen babesari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko du beti.

Debekatuta dago Artxiboak entregatutako kopiei kopia berriak ateratzea, eta beste helburuetarako erabiltzea.

Erreproduzitutako irudiek ez die jabetza intelektual edo industrialerako eskubiderik ematen bere egileei edo eskuratzen dituztenei.

Alkateak —edo, ordezkariak, Gobernu Batzordeak— argazkiak helburu komertzialetarako erabiltzea baimen dezake zuhurtasunez eta, hala badagokio, ordaindu beharreko kopurua eta bestelako baldintzak ezarriko ditu.

KONTUAN HARTU BEHARREKO ARAUAK:

1. Jabetza intelektualaren eskubidera lotutako obren erreprodukzioa, irabazi asmorik gabe eta soilik ikerketa helburuetarako egiten denean bakarrik izango da posible (1/1996 EDLaren 37.1. artikulua).
2. Ezezkoa emango zaio eskaera edo kopiak egiteari fondoek kontserbazio egoerak horrela eskatzen duenean, edo bere manipulazioak hondatzeko arriskua dakarrenean.
3. Artxiboko dokumentuen erreprodukzioak jasotzen diren edizioetan beren jatorria aipatu beharko da.
4. Artxiboko fondoek erreprodukzioak agertzen diren argitalpen edo ikerketa lanen ale bat entregatuko da, Artxiboaren Liburutegi Teknikorako.
5. Eskatzaile guztiek, hemen adierazitako arau guztiak eta indarrean dagoen arauditik eratorritako guztiak errespetatzeko konpromisoa hartzen dute..

ESKAERAK:

Posta-korreoz, faxez edo posta elektronikoz:

Bergarako Udal Artxiboa
San Martin Agirre plaza 1
20570 BERGARA

Faxa: 943 779 163

Tfnoa: 943 779 132 / 943 779 127

artxiboa@bergara.net

<http://bergarakoartxiboa.net>